08. Kalea espazio publiko gisa

1. Sarrera. Kalea zera da: Hiri-lurzoruko espazio publikoen sareko elementu lineala (pribatuak ere badaude), partzela ezberdinetarako sarbidea (oinezkoena, kotxeena, hiri-zerbitzuena…) ahalbidetzen duena. Kalea euskal inkontziente kolektiboan: Elizatea "kalea" da; baserriaren kontrakoa, zerbait ezezkor moduan ("kale egin", "kalekume"). Adibideak: Urkiolako baserri bat eta Orozkoko Ibarra elizatea.
2. Kalea Neolitikoan garatutako giza-asmakizuna da. Catal Huyuken (K. a. 6.500) ez zegoen eta estalkiak erabiltzen omen zituzten leku batetik bestera joateko. Lehen kalea, ustez: Choirokoitia (K. a. 6.000, Txipre, UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatua).
3. Kalearen oinarrizko elementuak:
    - Eraikin-lerroa eta eraikinen luzera. Kaleak hiru dimentsio ditu, eraikinen fatxadek kalearen muga osatzen dute, eta kalearen zati garrantzitsua dira; zaila da esatea kalea dagoenik muga-eraikinik gabe (adibidez, New Delhiko Errege-bidea, 1945). Eraikinen erlaitzak kalearekiko elkartzut edo paralelo (Gruberren marrazkiak). Londresko *Regent Street*, John Nash arkitektoarena, 1811-14an gauzatua; erregeordeak (geroago George IV.a izango zenak) bere etxetik –Carlton house- *Regent's* parkera joateko ibilbidea –Trafalgar plazatik pasatuz- monumentu bihurtzeko eraiki zen, *sventramento* moduko operazio handia gauzatuz. Krier, 22x22 metroko etxe-irlak, Bartzelona (Cerdáren jatorrizkoek 113 x 113 metrokoak dira); Leon Krierren Poundburyko ikuspegi pintoreskoa, 1991.
    - Arkupeak, portikoak edo atariak. Adibideak: Timgad (Argelia) eta Palmirako (Siria) *cardo* (ipar-hego orientazioarekin) eta *decumano* (eki-mendebaldekoarekin) *maximo*ak. Jerashko *cardo maximo*a eta plaza obalatua. Isolani etxea, Bologna, XIII.
    - Hiri-zerbitzuak eroateko hoditeria. Adibidea: Paris, hiri-zerbitzuak sartu baino lehenago, eta geroago (1863).
    - Zuhaitzak eta hiri-altzariak. Adibidea: Adolphe Alphanden *Les Promenades de Paris*, 1867-73.
    - Espaloiak eta zoladura. Adibideak: Ponpeiako harrizko zoladura. Zurezko zoladurak (Eslaboen Meissen, Alemania, K.a. 1.000; Nicolson sistema, 1859). Dimitris Pikionis, Atenasko Akropolira doan Bide Panatinaikoko zoladura, 1951-57 (Montrealeko McGill unibertsitateko arkitekturako eskolak egindako bideoa, 1:45 min).
4. Kalea ez da soilik leku batetik bestera joateko hiri-elementua:
    - Kalea prozesio-bide gisa. Adibideak: aipatutako Bide Panatinaikoa, Atenas. Teotihuacaneko Ilargiaren piramidera doan kalea (hildakoen hiribidea, II-IV. mende bitartekoa). Aste Santua Huelvan. Errosarioaren prozesioa, Gasteizko jaiak. Presoen aldeko ostiraleroko manifestazioa, Donostia.
    - Kalea merkatu gisa. Adibideak: Chipping Campden merkatu-hiria (1627ko merkatua), Gloucestershire, Ingalaterra; *Royal Mile* kalea, Edinburgh, Eskozia.
    - Kalea antzezpen-espazio edo antzerki gisa. Are gehiago, kalea erabili da antzerkirako metafora gisa: Sebastiano Serlioren ezenatoki komikoa eta ezenatoki tragikoa, 1537. Vicenzako Antzerki Olinpikoa (1580, Andrea Palladio; 1587, Vicenzo Scamozzi). Bath, Ingalaterra, dirudunen bainuetxe-hiria bilakatu nahi zuten XVIII. mendean, horretarako John Wood (aita eta semea) arkitektoak hiri-sekuentzia eta georgiar estiloko eraikin adierazgarriak eraiki zituztela (*Queen square* -1729/36-, *Gay street*, *Circus square* -1754/68-, 33 eraikinekin eta *Royal Crescent* -1767/74- izeneko eraikina, 30 etxe ilaratuekin); fatxada bateratua bilatu zuten, baita hiri-ikuspegi pintoresko eta asimetrikoak ere.
    - Kalea zubi gisa. Adibideak: Batheko Pulteney zubia, Adam anaiek eraikia 1773an. Old London Bridge, 1750ko irudiak. Pariseko La Cite irlarako zubiak. Firenzeko Ponte Vecchio, 1345. Bassano del Grappako zubia, Palladiok diseinatua 1569an. Zaha Hadid, Londresko *zubi bizigarria*ren proiektua (1996) eta Zaragozako Expoko zubia (2008).
    - Kale estalia. Adibideak: Esfahaneko bazarra, Iran, XVII. mendekoa. Vittorio Emanuele IIaren galeria, Milano, Giuseppe Mengoni, 1861.
    - Kale jasoa. Adibideak: Leonardo da Vinci, 1485; NeoTokyo, 2.030, Akira. Candilis, Josic eta Woods, Tolouse Le Mirail. Alexandra Road, Londres, Neave Brown, 1968.
5. Mugimendu Modernoa eta kalearen desagertzea.
    - Le Corbusierren "mort de la rue" –kalearen heriotza-. Bijlmermeer auzunea, Amsterdam; 100.000 biztanlerako 50. hamarkadan pentsatua; 10 solairuko eraikinak; Holandako auzune degradatuena eta arriskutsuena izatera ailegatu zen; gaur egun, gutxinaka eraisten ari dira, familiabakarreko etxebizitzekin ordezkatuz (African TV Networken bideoa, 3 min).